

## 12/2024 UDALEKO OSOKO BILKURA

### 2024KO ABENDUAREN 30EAN EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURARENAKTA

#### BERTARATUTAKOAK:

##### ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

##### ZINEGOTZIAK:

Ana Elosegui Artola (EH Bildu taldea)

Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)

Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)

Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)

Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)

Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)

Agurtzane Nuñez Yarza (EAJ taldea)

##### IDAZKARIA:

Elena Zaldua Miguel

##### EZ BERTARATUTAKOAK:

Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2024ko abenduaren 30ean, arratsaldeko 18:00etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ezohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Elena Zaldua aritu da Idazkari lanetan.

### 1.- EZOHIKO BILKURARAKO DEIA PREMIAZ EGIN IZANARI BURUZKO ERABAKIA.

Alkateak bilkurarako deialdia premiaz egiteko arrazoiak azaldu ditu.

2024ko irailaren 19tik Anoetako Udaleko Idazkaria-kontuhartzailea aldi baterako ezintasun-egoeran dago eta Foru Aldundiak baimena eman zion Errenteriako bitarteko diruzainari metaketa araubidean lanpostuaren funtzioak betetzeko (2090/2024 Foru Agindua).

Idazkaritzan egon den hutsuneak halabeharrez gaiak pilatu eta zenbait garaitan atzeratzera eraman du Anoetako Udala.

Bitartean Anoetako Udalak oso garrantzitsua eta atzeraezina den gai bat dugu esku artean: Anoetako udaletxea eraikinaren birgaitze eta eraberritze energetikoaren obrak. Anoetako Udalak dirulaguntza bat eskatu zuen Anoetako Udalaren birgaitze energetikorako, eta EEEko zuzendari nagusiaren 1210601-2021 ebazpenaren bidez erabaki zen dirulaguntza hori ematea, baldin eta jarduera amaitzeko eta fakturatzeko datak 18 hilabete gainditzen ez baditu, ebazpen hau jakinarazten denetik kontatzen hasita, hau da, 2025eko abuztuaren 2ko data baino lehen. Obra gauzatzeko aurreikusitako epea 7

hilabetekoa dela kontuan hartuta, premia berezia du Anoetako Udalak lehenbailehen prozedura hau martxan jarri eta obraren lizitazioarekin lehenbailehen hasteko.

Behin Alkateak ezohiko bilkurarako deialdia premiaz egin izanari buruzko arrazoiak azaltzeaz bukatutakoan, Agurtzanek ondorengo irakurri du:

“Eaj taldeko kideok ados gaude egingo den obrarekin, eta noski, diru-laguntza ezin da galdu, baina aurka bozkatuko dugu bi arrazoiengatik:

Alde batetik, ez gaude batere ados gauzak egiteko moduarekin.

> Proiektuaren memoriaren bisatua 2023ko irailean onartu zen, Nuriak aurtengo urtarrilean jaso zuen.

> Diru-laguntzaren ebazpena otsailaren 2an egin zen

> 2023ko likidazioaren dekretua maiatzaren 23an onartu zen, eta

> Kreditu aldaketa joan zen azaroaren 5ean onartu genuen.

Diru-laguntza eman zenetik, otsailetik, hamar hilabete pasa dira, bederatzi kreditu aldaketara arte... ez dakigu zer gertatu den denbora honetan, baina plazoak aurrera zijoazela jakinda, ezin dugu onartu azken unera arte itxarotea.

Bestalde, Lizitazioko dokumentuan zein gaur goizean bidalitako Hasierako probidentzian plenoaren data abenduaren 26an jartzen du. Ez zaigu dokumentazioa zuzenduta iritsi, eta hori zuzendu gabe ere ezin dugu onartutzat eman”.

Behin hau irakurrita ez aurkako bozketa proiektuari zegokiola eta ez bilkurari argitu ostean, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

## EBAZPENA

**BAKARRA.** Ezohiko osoko bilkura honen deialdiaren premiazko izaera berrestea.

Behin Udalbatzak ezohiko osoko bilkuraren premiazko izaera berretsita, Alkatearen aginduz bilerari hasiera eman zaio, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

## EBAZPENAK

**2.- EITZEN ARKITEKTURA & DISEINUA EGINDAKO “ANOETAKO UDALETXEKO ERABERRITZE ENERGETIKOA” IZENEN PROIEKTU TEKNIKOA ONARTZEKO PROPOSAMENA ETA ANOETAKO UDALETXEA ERAIKINAREN BIRGAITZE ETA ERABERRITZE ENERGETIKOAREN OBRAK KONTRATATZEKO KONTRATAZIO-ESPEDIENTE, KONTRATUA ETA ESLEIPEN-PROZESUA ARAUTUKO DITUZTEN BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN ETA BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIAK ETA KONTRATAZIOARI DAGOKION GASTUA ONARTZEKO PROPOSAMENA”.**

Alkateak hitza hartu du berriro ere obra honen garrantzia eta urgentzia azaltzeko; Udalak Next Generationeko diru-laguntza bat du obra honekin lotua (ebazpenetik 18 hilabetetan amaitu beharrekoa) eta baita kreditu aldaketa bat ere.

Garrantzia berretsita, dagoeneko udal zinegotziei helarazi zitzaien espedienteko dokumentazioari egin dio erreferentzia.

Halaber, 2024ko abenduaren 30ean, ondorengo ebazpen-proposamen txostena egin zen:

“... ”

Lehenengoa. Onartzea EITZEN ARKITEKTURA & DISEINUAK egindako “ANOETAKO UDALETXEKO ERABERRITZE ENERGETIKOA” izeneko proiektu teknikoa.

Bigarrena. IREKITZEA “ANOETAKO UDALETXEKO ERABERRITZE ENERGETIKOA” energetikoa izeneko proiektu teknikoa gauzatzeko kontratazio-espedientea.

Hirugarrena. Zehaztea kontratazio prozedura presazko prozedura irekia izango dela, espedientean jasotako justifikazioan oinarrituta, eta haren lizitaziorako deialdia egitea.

Laugarrena. Onartzea kontratua arautuko duten Baldintza Administratibo Berezien eta Baldintza Tekniko Berezien Agiriak.

Bosgarrena. Lizitazioa deitzea, eta horrela iragarriko da Udalaren Kontratatzailearen Profilean, HAMAHIRU (13) egun naturaleko epean, modu horretan proposamenak aurkez daitezzen.

Seigarrena. Dagokion gastua onartzea:

<b>Ekitaldia</b>	<b>Aurrekontu-partida</b>	<b>Zenbatekoa</b>
2024	1.0000.622.920.03.01	716.970,85 €

Zazpigarrena. Ebazpen honen berri ematea Kontu-hartzaitzari eta Diruzaintzari, egoki diren kontabilitate-idatzoharrak egin ditzaten.

Zortzigarrena. Kontratatzailearen profilean kontratazio-espedientea osatzen duen dokumentazio guztia argitaratzea, bereziki Baldintza Administratibo Berezien eta Baldintza Tekniko Berezien Agiriak.

...”

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udalbatzak, gehiengo osoz, aldeko 7 botoekin eta kontrako batekin, honakoa onartu du:

## EBAZPENA

Lehenengoa. Onartzea EITZEN ARKITEKTURA & DISEINUAK egindako “ANOETAKO

UDALETXEKO ERABERRITZE ENERGETIKOA” izeneko proiektu teknikoa.

Bigarrena. IREKITZEA “ANOETAKO UDALETXEKO ERABERRITZE ENERGETIKOA” energetikoa izeneko proiektu teknikoa gauzatzeko kontratazio-espeditentea.

Hirugarrena. Zehaztea kontratazio prozedura presazko prozedura irekia izango dela, espeditentean jasotako justifikazioan oinarrituta, eta haren lizitaziorako deialdia egitea.

Laugarrena. Onartzea kontratua arautuko duten Baldintza Administratibo Berezien eta Baldintza Tekniko Berezien Agiriak.

Bosgarrena. Lizitazioa deitzea, eta horrela iragarriko da Udalaren Kontratatzailearen Profilean, HAMAHIRU (13) egun naturaleko epean, modu horretan proposamenak aurkez daitezten.

Seigarrena. Dagokion gastua onartzea:

<b>Ekitaldia</b>	<b>Aurrekontu-partida</b>	<b>Zenbatekoa</b>
2024	1.0000.622.920.03.01	716.970,85 €

Zazpigarrena. Ebazpen honen berri ematea Kontu-hartzailetzari eta Diruzaintzari, egoki diren kontabilitate-idatzoharrak egin ditzaten.

Zortzigarrena. Kontratatzailearen profilean kontratazio-espeditentea osatzen duen dokumentazio guztia argitaratzea, bereziki Baldintza Administratibo Berezien eta Baldintza Tekniko Berezien Agiriak.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 18.17an Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.